

Asisko gutuna

2012ko martxoa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 41. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hilero Asis Sareak frantziskotar espiritualitatearen lau printzipioren jirabiran gogoeta egitera gonbidatzen gaitu. Hil honetako gutuna horietako lehenengoaz doa: "Jainkoarekiko harreman pertsonala landu".

Harreman hori zentratu daiteke dena

laburbiltzen duen ardatz baten inguruan: konfiantzaz, itxaropenez eta maitasunez Aitaren nahia egitera irekia bizi. Obedientzia eta libertatea dira martxorako prestatuturiko gutunaren muin. Kontraesan dirudien zer bait: libreki hautatu Jesusi jarraitzen dion obedientzia.

Gogoetarako gaia

Obedientzia

Joan eta etorri gabiltza, eta eguneroko presek alden du egiten gaituzte bihotzetik, eta badirudi gure fedea aierik gabe gelditzen dela. Joan eta joan urrutiratzen eta distraitzen gara, eta betarik gabe uzten gaituzte eguneroko bizitzak eta suertatzen zaizkigun aldiek. Baina egunerokoaren mende erortzen ez bagara, behin eta berriz Kristoren bila itzultzen bagara, gutxi bada ere Jainkoaren Hitzarengana hurbiltzen bagara, Hitz horrek solasa ematen eta bihotza suspertzen digu.

Presentzia baten esperientzia da, eta horrek lagun egiten digu, eta amore ez ematera eta geure iturritik ez aldentzera deitzen gaitu. Horixe dugu intuizio sakona: Jainkoagandik urruntzen bagara ere, bera zain dugula. Intuizio horretan aurki dezakegu Jainkoaren maitasuna, etengabe iraunkorra. Presentzia hori ez zaigu ematen ziurtasun gisa, geure buruarekiko gatazka gisa baizik. Etxetik joandako semearen antzera, geure joan-etorri eta kontraesanetan horixe egin dezakegu: apalki eskertu eta txiki sentitu Aitak semea aurkitzean duen pozagatik.

Behin eta berriz dator gugana, gure zain sentitzen dugu, eta isiltasunean haren presentzia sumatzen dugu. Antzeman dezakegu, bizitzak baduela zentzu sakon bat, eta horrek baduela zerikusik Aitaren nahia egitearekin, obeditearekin, obeditea libreki hautatzearekin. Betiko konfiantza horren aurrean, etxetik joandako semeon bihotzak Kristoren nahia egin nahi luke, behin eta berriro saiatu eskatzen zaigun gauza bakarra egiten: maitatzen, alegia. Aitari obeditearen askatasun helduaren zeinu denez, Ebanjelioko hitzei obeditearen giza betetasuna lortzeko modurik onena denez.

"Bai" esan nahi izan, jarriko dugula geure borondatea, prest gaudela, jakinik Bera dela gure harkaitza. Libreki hautatu obeditea, Kristok eskaintzen digun bidearen bila ibiliz: apaltasun eta emanak bizitzearen bidearen bila. Obeditu, geure ahulezia ezagutuz, baina jakinez ez zalantzek ez isiltasunak ez dutela gugandik onartzen gaituen Espiritua aldentzen.

Ebanjelioko pasartea: Mt 36-46

Jesus bere ikasleekin Getsemani zeritzan landa batera iritsi zen, eta esan zien: «Zaudete hemen, ni hara otoitz egitera noan bitartean».

Pedro eta Zebedeoren bi semeak eraman zituen berekin. Tristura eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien: «Hiltzeko zorian nago tristuraz. Gelditu hemen eta zaudete erne nirekin batera».

Eta aurreraxeago joanik, ahuspez erori zen eta otoitz egin zuen, esanez: «Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala».

Ikasleengana joan eta lotan aurkitu zituen. Pedrori esan zion: «Beraz, ordubete ere ezin izan zarete nirekin

erne egon? Zaudete erne eta egizue otoitz, tentaldian ez erortzeko: gogoz kartsu izan arren, ahula baita gizakia».

Bigarren aldiz alden du eta otoitz egin zuen, esanez: «Ene Aita, edari samin hau derrigorrez edan behar badut, egin bedi zure nahia».

Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzizutzen. Haiiek utzirik, berriz ere alden du eta hirugarren aldiz otoitz egin zuen, lehengo hitzak berriro esanez. Ondoren, ikasleengana joan eta esan zien: «Egin lo eta hartu atsedan! Hara, gainean da ordua, Gizonaren Semea bekatarien eskuetara emana izateko. Jaiki, goazen, hemen da salduko nauena!»

Frantziskotar espiritualitatea

Frantziskok obedientzian bizi nahi izan zuen. Harentzat obeditzea, Jainkoaren hitza entzunez eta Jainkoagan konfiantza jarritz bizitzea zen. “Jauna, zer nahi duzu nik egitea?,” galdetuz hasi zen bere konbertsioa. Eta harrezkero ikasiz joan zen konfiantzan bizitzen, bere burua abandonatuz eta emana biziz bidea egiten. Lehen, berak egiten zuen programa, berak egiten zituen ametsak bere proiektu eta planetatik eta dena bere inguruan ibilarazten zuen. “Jauna, zer nahi duzu nik egitea?: hor aurkikuntza bat egon zen, eta hortik aurrera Jainkoa bihurtu zen zentro, Haren hitza bizi-iturri, eta Haren nahia gauzarik maiteena. Orduan Frantziskok abandonatu egin zuen bere burua Jainkoaren nahira, obedientzia maitetsura. Konfiantza dugunean, libre eta benetako izatea oparitzen zaigu, geure burua gorde edo atzipetu gabe, disimulurik erabili gabe. Konfiantza dugun haren aurrean izan gaitezke, besterik gabe eta pozik, gu geu, xalo eta argi eta garbiak. Jesu Kristoren Aita Jainkoarekiko obedientziaz hitz egiteko, Frantziskok espresio hau erabiltzen du: “Bere nahia Aitarenean jarri zuen”. Eta horrela esaten digu obedientzia ez dela ezer nahi ez izatea edo desiratzea, baizik eta indar guztiz maite dugun hark nahi duena nahi izatea. Maitasunagatik obeditzea; horregatik Frantziskorentzat karitatea da obedientziaren ahizpa. Maitasunak bakarrik hezten ditu egoki desioak eta moldeatzen ongi nahiak. Egiazko obedientziak beharrezko ditu: bereizkuntza, egian ibiltzea, norbere baitan sartzea eta bihotza jokoan jartzea. Obedientzia onak pertsona libre bat behar du, maitasunez eta maitasunagatik Jainkoari honela esaten ikasiz doana: “Jauna, zer nahi duzu nik egitea?”.

Otoitza

Ulertzen ez dudanean,
bizitzak ihes egiten didanean,
betiko historia berriz gertatzen denean,
dena gaizki doala dirudienean,
sufrimendua lagun dudanean,
gurutzearen zama gainean dudanean,
basamortuak ezustean harrapatzen nauenean...
egin bedi zure nahia.

Bidea monotono egiten bada,
zeruertza ilunduz badao, esperoak zimeltzen badira,
erraiak idor badaude eta nekea astun,
lore eta fruituak desagertu eta indarrak ahul badira...
egin bedi zure nahia.

Zure planak onartzea zail bazait ere,
gogorak eta aldats-gorakoak iruditzen bazaizkit ere,
eroso ibiltzetik ateratzen banaute ere,

sustraitik atera eta egurats gorrian uzten banaute ere,
nire egitasmo eta ilusioei kontra egiten badiete ere,
protesta egin eta argibideak eskatzen badituz ere,
etengabe honat harat dantzatzeko banaute ere,
egin bedi zure nahia.

Argia presente denean,
haizekirriak esperoak ekartzen eta kulunkatzen dituenen,
oasiak itzala eta atsedena eskaintzen dituenen,
oihuak bozkariozkoak eta festakoak direnean,
bizitzaren pilpira epela denean,
maitasunak doan inguratzen nauenean,
dena nobedade eta txera denean, egin bedi zure nahia.

Orain, Jauna, txundituta eta hautsita uzten banau ere,
egin bedi zure nahia.

Florentino Ulibarri

Gutuneko azken hitzak

Libre izatea eta harremanean ibiltzea gizakiaren bi isurialde dira elkar osatzeko (Moratalla).

2012ko apirileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate apirileko erreferentzia guztiak:

1 Mc 15,1-38	7 Mc 16,1-7	13 Jn 21,1-14	19 Jn 3,31-36	25 Mc 16,15-20
2 Jn 12,1-11	8 Jn 20,1-9	14 Mc 16,9-15	20 Jn 6,1-15	26 Mt 5,13-16
3 Jn 13,21-33.36-38	9 Mt 28,8-15	15 Jn 20,19-31	21 Jn 6,16-21	27 Jn 6,52-59
4 Mt 26,14-25	10 Jn 20,11-18	16 Jn 3,1-8	22 Lc 24,35-48	28 Jn 6,60-69
5 Jn 13,1-15	11 Lc 24,13-35	17 Jn 3,5 ^a .7b-15	23 Jn 6,22-29	29 Jn 10,11-18
6 Jn 18,1-19-42	12 Lc 24,35-48	18 Jn 3,16-21	24 Jn 6,30-35	30 Jn 10,1-10

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2012ko martxoa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 41. zenbakia

Hil honetan Asis Sareko lehen printzipioari ekingo diogu: egunero, Jainkoarekiko harreman pertsonala lantzeari. Etengabeko harreman libretik soilik ezagutu ahalko dugu Jainkoaren nahia, gero berori obeditzera jarri nahi dugularik.

Obedientzia

Hasteko, obeditzeko dauzkagun zailtasunengatik galdetuko diogu geure buruari.

Zer sentimendu sortzen dira guran obeditzeko jarreraren aurrean? Obedientzia ez da menpekotasuna.

Hil honetako gaia lantzeko, has zaitez une eta toki baten bila, bertan isiltasuna egiteko eta zeure buruarekin eta Jainkoarekin aurkitzeko.

Utzi hainbat gauza eta eginkizun, utzi aitzakia bila ibiltzea, eta jar zaitez gelditi!

Garizuman gaude eta aldi hau izan daiteke momentu egokia, Jainkoarekin harremana berreskuratzeko, Harekin aurkitzeko, zain daukazula eta zurekin une bat pasa nahi duela jakiteko.

Zeintzuk dira zeure zailtasunak, zain duzun Jainkoarengana hurbiltzeko? Ez daukazu betarik? Ez dizute uzten zeure eguneroko eginkizunek? Edo beldur ezkutuak daukazu Harekin aurkitzeko?

Obedientziaz hitz egiten entzutean, zer da bihotzean lehenen sortzen zaizuna? Jainkoari obedituz, autonomia galduko duzula uste duzu zeure bizitzan?

Jainkoak nahi duena ez da zuk berari obeditzea besterik gabe; nahi duena da zu bere nahira libreki jartzea, Harekiko harremanetik pixkanaka aurkituz Haren nahia betetzea duzula bizitzan gerta dakikezun gauzarik onena. Haren nahia egiteak beste ezerk baino libreago egiten zaituela aurkituko duzu, zeren eta Harengandik Maitasuna aurkituko baituzu, eta Maitasunak bakarrik egiten gaitu libre.

“Egizue otoitz tentaldian ez erortzeko...”

Aitaren nahiak eramaten du Jesus Getsemanira, baita horren aurreko bizitza guztia egitera ere. Testuan badirudi Jesusen ezingo duela Aitak eskatzen dion azkenaldi hori onartu; larrituta eta triste dago, ez du bakarrik egon nahi eta larriminetik egiten du otoitz. Eta askatasunik handienetik Aitaren nahira jartzen du bere burua: “Egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala”.

Jesusi ere kosta egin zitzaion obeditzen ikastea, eta sufrituz ikasi zuen.

Ikasleek ez dute ezer ulertzen. Guk ere ez dugu ezer ulertzen eta lo hartzen dugu. Agian ez dugu ulertu nahi Aitarengana entregatze horrek berekin daramana, eta nahiago dugu lo gelditu.

Irakurri testua, berria balitz bezala, sekula entzun ez bazenu bezala, eta egin otoitz. Zeintzuk dira agertuz doazen sentimenduak?

Jainkoari eskatuko diogu eutsi diezagula esna, Hark nahi duenari begiak ondo irekita, etor dakigula, ikasleei bezala, gure apatia eta lozorrotik ateratzera, horietan erortzen baikara sarriro, beharrezko den denborarik ematen ez diogunean.

Frantziskotar espiritualitatea

Frantziskok obedientzian bizi nahi izan zuen. Guk ere obedientzia horretan bizi nahi dugu, baina beldur gehiegi daukagu, konfiantza falta zaigu Jainkoagan. Plan gehiegi daukagu geugandik eginak, beroriek Jainkoaren eskuetan uzteko; eta sarritan geure buruari galdetzen diogu: eta nire planak Jainkoak nahi dituenak ez badira? Edo Haren eskuetan jarriz, ezin dudan zerbaite niretzat nahi badu? Eta... nahiko balu? Eta horrela doazkigu sortuz hainbat galdera, beldur, aitzakia...

Ez ote da gertatzen guk ez dugula izan, Frantziskok bezala, geure bizitza aldarazi duen topo egite hori Jainkoarekin?

Hil honetan zehar egizu otoitz testuekin, eta esan Jainkoari egunero: “Jauna, zer nahi duzu nik egitea?”. Agian hasieran izutu egingo zaitu, baina pixkanaka aurkituko duzu Jesus bera bide egiten zaizula, irakatsi egiten dizula maitatzen, eta egunetik egunera handiagoa dela zure entrega.

“Egin bedi zure nahia”

Egin zureak otoitzaren hitzak, utzi horiei zeure bihotzetik irteten. Jar ezazu arreta berezia behin eta berriro esaten: “Egin bedi zure nahia”, zeure burua konfiantzaz eta apalki Jainkoaren eskuetan utziz.